

Elgoibar 1326. zenb.
XXXI. urtea - 2024/05/03



Denak bat

Danobaten
70. urtemuga



KARLISTALDIAK: XIX. MENDEKO GERRA ZIBILAK ... ETA GEHIAGO

Bigarren karlistaldia (1872-1876): Foru sistemaren azken urteak




Hizlaria: Mikel Alberdi

Historia zalea eta Zumalakarregi Museoko historia teknikaria.

1868ko iraultzaren ondorioz Isabel II tronutik bota zutenean karlistek aukera berria ikusi zuten boterera iristeko. Lehenengo karlistaldiarekiko antzekotasun eta desberdintasunak aztertuko ditugu, foraltasunaren amaiera deskribatuz.

**MAIATZAK 8, ASTEAZKENA - 19:00
AITA AGIRRE KULTURGUNEKO ARETO NAGUSIAN**




elgoibar ikastola

HHO-1 MATRIKULA

Maiatzaren 10a arte
2023-2024 urtean jaiotakoak
Bisita pertsonalizatuak - 943 744 441

ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295
629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberrria.com
www.funerariaetxeberrria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Leire Kerexeta Berasaluze

Ikaslea

Ametsak egi(n)



*"Niretzako ekintzailtza
elkarlanaren eta
laguntasunaren
fruitua da"*

2 urterekin proiektu bati bide ematea negozio ideia bat baino askoz gehiago da. Ni bezalako neska gazte batentzat, hamaika aukera eskaintzen dizkizun kaxa bat zabaltzea bezalakoa da, edo beste hitz batzuetan, abentura berri bat hastea bezalakoa, bide berri horrek eskainiko dizkizun kontakizun eta desafioak zeintzuk izango diren eta bertan egongo diren mugak zein izango diren jakin gabe.

Oraindik gaztea naiz, eta horregatik "ekintzailtza" termino-objektu-material batekin lotzeko eskatzen badirate, paper txuri batekin lotuko nuke. Alegia, nire ustez ekintzailtza jardun bat aurrera eramatea edo ekintzaile izatea paper txuri baten gainean zuk nahi duzun moduko etorkizuna margotzeko aukera da. Zuk aukeratutako koloreekin eta baita bertan irudikatuko dituzun marrazkiak zeintzuk izango diren hautatzeko ahalmenarekin ere. Ez hori bakarrik, marrazki horiek norekin aurrera eraman nahi dituzun aukeratzeko gaitasuna ere baduzu.

Zerbait bakarra eta esanguratsua sortzeko aukera bezala deskribatzea ere ez legoke gaizki zer den proiektu bati ekitea. Dirua ardatz hartu gabe eta munduan zure pertsonaren arrastoa uzteko helburu bakarrarekin. Hala nola, ekintzailtza bide hau ez litzakete posible izango nire amets berdinak partekatzen dituzten pertsonarik gabe, niretzako ekintzailtza elkarlanaren eta laguntasunaren fruitua baita.

Horrenbestez, bizitza honetan uste dut ez dagola gauza politagotarik zure abentura zure kolore gustuoenekin margotzea baino, hots, ametsak egia bihurtzea bertan aurkituko dituzun arriskuak bigarren plano batean utziz eta porrotetatik ikasteko intentzioa izanik. Eta jada zirrargarriagoa izateko garaipen txiki bakoitza ospatu behar den bide hori, ez galdu aukera ibildai hori zure amets berdinak dituzten lagunekin partekatzeko.

'Elgoibarren erosteak saria du' ginkana hasi du Txankakua merkatarik elkartek



Elgoibarren erosteak saria du izeneko ginkanaren barruan 5.000 euro banatuko ditu Txankakua merkatarik elkartek erosketa-baleetan. Atzo hasi zuten ginkana eta maiatzaren 29ra arte egongo da martxan. Elkarteari atxikitako saltokietan kartilla batzuk eskuratu ahal izango dituzte bezeroek, eta haiexek bete beharko dituzte. Horretarako, sei zigilu lortu beharko dituzte, sei denda ezberdinetan erosketak eginda. Behin txartela osatuta dutenean, izen-abizenak eta telefono zenbaki bat gehitu eta Txankakuko establezimenduren batean laga beharko dute, zozketan parte hartzeko. Zozketa maiatzaren 31n egingo dute eta 5.000 euro banatuko dituzte guztira, erosketa-baleetan. 1.000 euroko sari bat eta 200 euroko hogeitazari izango dira banatuko dituztenak.

Honako establezimendu hauek egin dute kanpainarekin bat: Alire Estetika, Aramburu Bitxi-denda, Aauri Lurrindegia, Atelier

Oihana, Barrutia Optika, Bizkor Bizikletak, Casa Astigarraga, Cristina Garcia Estetika eta Terapia Naturalak, Darama, Doña Mercedes, Ecenarro Lentzeria, Farmazabal, Federópticos Ikus, Ferpi Jantzi-denda, G&M Jantzi-denda, Garate Jantzi-denda, Garbiñe Estetika, Goiara Lurrindegia, Ipintza Margoak, Iria Modak, Iriondo Altzariak, Iriondo Kirolak, Iza'k Ile-apaindegia, Kala Loradenda, Karkizano, Kima Bioestetika, La Bermeana Arraindegia, Lagunak Koltxoi-denda, Lanbroa, Lete, Maria Urizar Ile-apaindegia, Martin Lopez Carburantes, Meraki Ile-apaindegia, Nalai Oinetakoak, Nu-van, Olaia Martinez Estetika Zentroa, , Ongi Iturgintza eta Diseinua, Ortopedia Itziar Sarasketa, Pitxintxu, Roteta Elektrizitatea, Sara Jantzi-denda, Txillarre Eko-denda, Uzuri Optika, Vinoteca Julio Bueno Ardotehia, Zazpi Informatika, Zeleta Barazkiak eta Zure Alde Abokatuak.

Sakelako telefonoaren erabilerarekin kezkatuta dauden gurasoentzako bilera antolatu dute maiatzaren 8rako



Sakelako telefonoaren erabilerarekin kezkatuta dauden guraso batzuk Amataru Mobila taldea sortu dute, eta hainbat hilabeteko lanaren ostean egindako hausnarketa konpartitu nahi dute beraien egoera berean dauden beste guraso batzuekin. Horretarako bilerara deitu dute hilaren 8rako. 18:00etan izango da Kultur Etxean eta LHko umeen guraso guztiak gonbidatu dituzte. Besteak beste, pantailen erabilerari lotutako konpromisoari buruz hitz egingo dute.

Ekainaren 1ean zabalduko dituzte Mintxetako igerilekuak



Mintxetako igerilekuak ekainaren 1ean zabalduko dituzte eta irailaren 29an itxi. Irekiera aurreratzea eta itxiera atzeratzea erabaki du aurten Kirol Patronatuak, eta horrenbestez, Mintxetako uda denboraldia lau hilabetekoa izango da, hiru hilabetekoa beharrean. Astelehenetik barikura 11:00etatik 20:30era zabalduko dute; zapatuetan, domeketan eta jai-egunetan 10:00etatik 20:30era. Abuztuan eta irailean 20:00etan itxiko dituzte. Sarrerak 6 euro balioko ditu (18 urtetik beherakoenak, berriz, 4 euro).

Abonuen prezioak

- 18 urtetik beherako banakakoa: 72,25 €
- 18 urtetik gorako banakakoa: 81,25 €
- 60 urtetik gorako erretiratuak: 72,30 €
- 60 urtetik gorako erretiratuen senitartekoa: 120€
- Ikasleak: 75,50 €
- Elgoibarko familia: 142,50 €
- Behar bereziak dituzten pertsonak: 68€
- Elgoibarren bizi ez den banakakoa: 95,75 €
- Elgoibarren bizi ez den familia: 153,50 €

Boluntarioak behar dituzte elikagaiak biltzeko kanpainarako

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak janari bilketa egingo du maiatzaren 24an eta 25ean, eta Elgoibarko Udalak eta Gurutze Gorriak bat egin dute deialdiarekin. Horretarako, boluntarioak behar dituzte, eta herritarrei dei egin diete janari bilketan parte hartzera. Txandak antolatuko dituzte, eta boluntario kopuruaren arabera zehaztuko dituzte ordutegiak eta saltokiak. Laguntzeko prest daudenek 943 741 050 telefonoan eman dezakete izena, edo Herritarren Arreta Bulegoan. Arduradunek gogoratu dute boluntarioen lana ezinbestekoa dela kanpaina hauek gauzatu ahal izateko. Udaberriko kanpaina honetan Eroski, BM eta Mercadonak hartuko dute parte. Elikagaiak nahiz bonuak emateko aukera egongo da.

Buruarinak egiteko tailerra antolatu dute Mendaron maiatzaren 10erako

Mendaroko Konparsa taldeak buruarinak egiteko tailerra antolatu du maiatzaren 10erako, Udalaren babesarekin. Familia tailerra izango da, HH3tik LH6ra arteko ikasleentzat, baina haur bakoitza heldu batek lagunduta joan beharko da. Ipuitantaik emango du, eta izena eman beharko da Udalaren webgunean edo ludotekan, Morroskillon nahiz udaletxean laga dituzten esku-orriak bete eta kultura@mendaro.eus helbidera bidalita. Gaur da izena emateko azken eguna.

Gaztelekuko udako eskaintzan izena emateko epea gaur amaituko da

Elgoibarko Gaztelekuak ekintza bereziak antolatu ditu ekainaren 17tik uztailaren 24ra bitarteko: jolasak, txapelketak, irteerak, txangoak, sukaldaritza tailerrak, egonaldia, beste herri batzuetako gazteekin planak... Denetariko ekintzak antolatu dituzte gazteen hezkuntzan eraginez aisialdiaz gozatzeko. Ekintza horietan izena emateko azken eguna gaur izango da. Informazio gehiagorako Elgoibarko Gaztelekura jo behar da: gaztelekua@elgoibar.org edo 943 743 228 / 628 170 330.

Gorputz irudiak autoestimuan duen eraginari buruzko mahai-ingurua, martitzenean



Gorputz irudia, autoestimua eta sare sozialak izeneko mahai-ingurua antolatu du Elgoibarko Udalak maiatzaren 7rako. Paula Fernandez eta Andrea Osoro izango dira solaskideak, biak ere nutrizio eta gorputz irudian adituak. Paula Fernandez sare sozialetan duen eraginagatik eta gorputz-irudi positiboa sustatzeko duen konpromisoagatik da ezaguna. Esperientzi zabala izan du arlo horretan, eta eragin handiko ahotsa izan da aro digitalean buruko osasunari eta emozionalari buruzko eztabaidan. Andrea Osoro, aldiz, elikadura-nahasmenduen tratamenduan ibilbide sendoa duen Elgoibarko psikologoa da. Lodifobia, autoestimua eta elikadura-jokabidearen nahasmenduen arteko harremana, eta perfekzio digitalaren presioa arintzeko estrategiak landuko dituzte, besteak beste. 18:00etan izango da, Lilan, gaztelaniaz.

Gobernu Plana aurkeztuko du Mendaroko Udalak eguenean

Maiatzaren 9an aurkeztuko du Mendaroko Udalak lau urterako Gobernu Plana, udaletxean, 19:00etan. Bilera irekia izango da eta herritar guztiak gonbidatu ditu Enetz Ezenarro alkateak. Plan horren bidez mendaroarren bizi-kalitatea hobetzeko konpromisoa hartu dutela zehaztu dute, eta horretarako 75 neurri "zehatz eta egingarri" landu dituztela. Proiektu horien zehaztasunak emango dituzte bileran.

Dantzan ospatuko du Birakak Nazioarteko Dantzaren Eguna



Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira, dantza emanaldia egingo du bihar Birakak, Aita Agirren, 13:00etan hasita. Kultur Kafeko aretoan egingo dituzte bost dantza lehenengo, erritmo eta dinamika desberdinak erabiliz. Horren ostean kanpora irtengo dira eta ikasle guztiek batera dantza bat dantzatuko dute. Azken dantza horretan herritarrei ere emango diete beraiekin dantzan egiteko aukera. Guztira 60 bat ikaslek hartuko dute parte.

Espazio publikoak berrantolatzeko plana herritarrekin diseinatzeko bilerak egingo dituzte datorren astean Mendaron

Espazio publikoen erabilera eta herritarren beharrianak aztertu nahi ditu Mendaroko Udalak, eta horretarako, parte-hartze prozesua abiatu du. Lau bilera egingo dituzte:

1. Gurasoen mahaia: Maiatzaren 7an, ikastolan, 15:30etik 16:30era.
2. Emakumeen mahaia: Maiatzaren 7an, udaletxeko udalbatza aretoan, 17:30etik 18:30era.
3. Herritarren mahaia: Maiatzaren 7an, udaletxeko udalbatza aretoan, 18:30etik 20:00etara.
4. Adinekoen mahaia: Maiatzaren 14an, jubilatuen lokalean, 10:30etik 12:30era.

Azkenik, maiatzaren 14ko arratsaldean talde guztiak batzeko deia egin dute, diagnostikoa egin eta proposamenak jasotzeko. 18:30ean izango da bilera, udaletxeko Udalbatza aretoan.

JONE ARRIOLA

Zinema zuzendari eta gidoilaria

 Ainhoa Andonegi

Zinema zuzendaritzari lotutako masterra amaitu berri du Bartzelonan, eta gaur egun Pausoka ekoiztetxean dihardu gidoilari lanetan Jone Arriolak (Elgoibar, 1998). 'Larrugorritan' proiektuarekin ezagutu genuen, eta orain 'Dena asmatuta dago' film laburra dauka esku artean. Elgoibarren aurkeztu zuen, eta Laburbira zirkuitoari esker, hainbat herritan proiektatu dute dagoeneko filma, tartean Elgoibarren. Oraindik ikusi ez dutenek domeka honetan izango dute aukera, Mendaron. San Agustin kulturgunean izango da, 18:00etan.



“Gauzak dagokion momentuan hitz egiteak duen garrantzia nabarmendu nahi izan dugu, gazteen ikuspegitik”

'Dena asmatuta dago' film laburraren gidoilari eta zuzendaria zara. Nola sortu zenuen proiektua?

Gidoia 2021ean idatzi nuen, eta ordutik finantziazio bila aritu gara, nahi genuelako film laburra ahalik eta modu duinenean grabatu. Azkenean Eusko Jaurlaritzak, Elgoibarko, Azpeitiko eta Getxoko udalek eta beste hainbat erakundek emandako dirulaguntzei esker sortu ahal izango dugu filma.

Gazteen arteko komunikazioan oinarrituta dago filma. Zer jorratu duzu?

Bai, gazteen arteko komunikazioa eta komunikatzeko modua dauka oinarrian, eta batez ere kontuan hartu dugu egoera deserosoetan komunikatzeko ditugun zailtasunak. Hor jarri genuen fokoa, eta zabaldu nahi izan dugun mezua izan da elkarrizketak daukan garrantzia, nahiz eta egoera eroso ez izan, etorkizunerako osasungarria izango delako. Bai bikote harremanetan, lagunartean, lanean... gauzak dagokion momentuan hitz egiteak duen garrantzia nabarmendu dugu lan honetan, gazteen ikuspegitik.

Bi mutilen arteko elkarrizketa deserosoa dauka oinarrian filmak.

Bikote bat da protagonista. Harremana hasi eta sei hilabetera konturatuko dira ez dutela zehaztu zein motatako harremana daukaten.

Bikote harreman moduko bat daukate, baina ez diote harremanari izenik jarri.

Elkarrizketa deseroso hori daukaten lekua ere berezia da: komuna.

Bai, biak baineran daude, eta hor hasten dute elkarrizketa. *Zer gara?* galderari erantzun nahian saiatzen dira argitzen beraien harremana zer den. Une horretan konturatzen dira bietako batek badaukala harremanari izena edo etiketa jartzeko beharra, eta besteak, aldiz, ez. Bi gazte horien arteko gatazkan oinarritzen da filma, eta elkarrizketa gorabeheratsu baten bidez saiatuko dira ondorio batera iristen. Jende askok galdetu izan digu komun hori non dagoen, eta gustatzen zaigu azaltzea komun hori eraikitako eszenatoki bat dela. Bilboko Zine Eskolako plato batean grabatu genuen filma, iaz, bi egunetan. Aktoreak ere geuk aukeratu genituen casting itxi baten bidez. Sei aktorei deitu genien eta binaka jarri genituen, gauza desberdinak probatzeko. Xanti Agirrezabala eta Jon Ander Urresti elkarren artean ezagutzen ziren eta hasieratik konektatu zuten oso ondo. Bata bermeotarra da eta bestea azpeitiarra, eta bakoitzak bere euskalkian hitz egiten du. Badakigu ulertzeko zailagoa dela, leku batzuetan azpitoluekin ematen dute filma, baina euskararen aberastasunari ere lekua egin nahi izan diogu.

20 MILIOI EURO INBERTITU DITU DANOBATEK ELGOIBARKO PABILOI BERRIAN

✍️ Ainar Argoitia 🏭 Asier Orbea / Danobat

Danobat kooperatibaren 70. urtemuga ospatu zuten joan zen astean Elgoibarko egoitzan. Astelehenetik domekara, hainbat ekintza antolatu zituzten bazkideei eta herritarrei begira, eta egunean, agintari eta enpresa munduko enpresa ofiziala ere izan zuten enpresan. Hain justu ere, momentu hori baliatu zuten pabiloi edo lantegi berria aurkezteko. Aeronautika eta haize erroten sektoreetako enpresen eskaeren hazkundeari erantzuteko eraiki dituzte instalazio berriak eta hogeit hamar milioi euroko inbertsioa egin dute bertan.

Berezia izan zuten joan zen astea Danobat kooperatiban, eta ez alferrik. Izan ere, 70 urte bete dira hamasei buruko lagun talde batek gaur makina-erremintaren sektorean erreferente bihurtu den kooperatibaren hazia erain zuenetik Elgoibarren. Arana y Uribeko langileak ziren Danobaten bazkide fundatzaile haietako gehienak, gazteak baina lanean zailduak, beren enpresako eguneroko lan jardunari beste hamaika lan-ordu eta buru-neke gehitu zizkietenak, proiektu berri eta partikular hura sortzeko. Danobat izenez bataiatu nahi izan zuten tailerra, baina ordurako izen hori beste enpresa batek hartu zuela ikusita, Danobat izenez bataiatu zuten. Jarri zituzten hasierako kapitalerako 300.000na pezeta eta jarri zuten martxan Danobat, Elgoibarko industriaren bilakaera goitik behera aldatuko zuen enpresa, eta aldi berean, enpresa ulertzeko eredu berezi baten adierazle bihurtuko zena. Ezaugarri sozialak zituen eredu izango zela adostu zuten, eta autonomia, ardura soziala eta giza balioekiko kezka ordainetan, zailtasun ugari



Erakunde publikoetako eta makina-erreminta

aurre egiteko prest agertu ziren. Gaur, 70 urte geroago eta askoren ekintzailetasunari eta lanari esker, 700 langile dira Danobaten, lantegiak eta bikaintasun zentroak dituzte Brasilen, Txinan, Mexikon, Alemanian, Herbehereetan, Italian eta Estatu Batuetan, eta Mondragon korporazioan sartuta dagoen Danobatgroup taldeko kide dira, zeinean 1.400 langile baino gehiago diren. Makina-erremintaren alorrean, gainera, lider da nazioartean eta lidergo horri eutsi eta ahal den neurrian sendotzea ditu erronka nagusi. Eta horretarako zabaldu dute, besteak beste, belaunaldi berriko makina handiak egiteko lantegi berria, Eusko Jaurlaritzak eta Mondragon taldeko kooperatibak hogeit hamar milioi euroko inbertsioa eginda. 12.000 metro koadroko azalera du instalazio berriak, joan zen egunean zabaldu zuten, eta arduradunen arabera, lagungarri izango zaie bereziki aeronautika eta haize erroten sektorean duten eskari handiari erantzuteko.

Planta berriaren inaugurazioan instituzioetako eta enpresa munduko ordezkari ugari parte



sektoreko arduradunak joan zen egunean, Danobatera egindako bisita ofizialean.

hartu zuten, besteak beste Iñigo Urkullu Jaurlaritzako jarduneko lehendakariak, Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapeneko sailburuak, Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusiak, Maialen Gurrutxaga Elgoibarko alkateak eta Mondragon taldeko presidente Iñigo Uzin eta Danobatgroupeko zuzendari nagusi Pello Rodriguezek. Xabier Alzaga Danobateko kontseilari ordezkariek eman zituen azalpenak eta esan zuen egindako inbertsioa etorkizuneko apustu sendoa dela eta Danobaten eskaerakartera gero eta handiagoari eta garapen-estrategiari erantzuten diola, eta bat datorrela Danobatgruppen inbertsio planarekin. Izan ere, Danobatez gain, Soralue eta Goimek

12.000 metro koadroko azalera du instalazio berriak eta lagungarri izango zaie aeronautika eta haize erroten sektorean duten eskariari erantzuteko

kooperatibak ere 20 eta 10 milioi euro baino gehiago inbertitzen ari dira, sektorearen erronkei erantzuteko. "Aurreikusten dugu 2024rako 200 milioi euroko fakturazioa handitzea eta hurrengoaldi estrategikoan kontsolidatzea, lehiatzen garen doitasunezko soluzioetan erreferente gisa posizionatuz", esan zuen Alzagak eta zehaztu zuen Danobat marka hedatzen jarraitu nahi dutela, sorreratik nabarmendu dituen "ingurunearekiko konpromisoa" indartuz. Zabaldu berri duten lantegiak ere ezaugarri bereziak ditu klimatizazioari eta energia ekoizpenari dagokionez. Plaka fotovoltaikoak ezarri dituzte adibidez, eta kontsumituko den energiaren herena bide horretatik lortu asmo dute.

Hazten jarraitzen du Danobatek. 2021ean, pandemia betean, Asian egin zuen apustu handiena; iaiz, filial berri bat zabaldu zuen Mexikon eta aurten, makina malguak diseinatzeko eta fabrikatzeko negozioa abiarazi du, doitasunezko arkitektura robotikoarekin, material arinen piezak mekanizatzeke.



JOSE ANTONIO HIDALGO

Danobateko Kontseilu Errektoreko lehendakaria

✍ Ainara Argoitia / 🗣 Asier Orbea

70. urteurreneko ospakizunetan murgilduta harrapatu dugu Jose Antonio Hidalgo Danobateko Kontseilu Errektoreko lehendakaria, urteurreneko agenda beteari eta enpresako ardurei erantzuteko ahalegin betean, baina tarte bat hartu du BARRENETIK bidalitako galdera-sortari erantzuteko.

“Orain arteko negozioak mantendu eta indartu nahiko genituzke, eta robotika arloan pausoak eman”

70. urteurreneko ospakizunak bukatu berri dituzue. Zer balorazio egiten duzu bizitakoaz?

Oso positiboa. Parte-hartzea oso handia izan da antolatu ditugun ekintza guztietan, eta bisitariak ere izugarri eskertu digute egindako lana eta osatutako egitaraua.

Langile bazkide gisa, zer egin zaizu gogoangarrien?

Bazkide fundatzaileek eta bazkide jubilatuek gure gaurko Danobat kooperatiba ikustera etorri zirenean agertu zuten lilura. Proiektuari bultzada handia ematen ari garela sentitzeak, haien ahotik hori entzuteak, animoak eta indarra ematen dizkigu orain arteko bidetik lanean jarraitzeko.

Zerbait esan nahiko zenioke zure ardurapean duzun giza-taldeari?

70 urtean lortu duguna eta urteurren honetan ospatu dugun hau gaur egungo kolektiboari esker ere izan dela. Eta hain justu ere, horixe aitortzeko, eskertzeko eta ospatzeko antolatu ditugu Familia Eguna eta atea irekitzeko jardunaldiak, besteak beste. Ekintza horietan lortu denak erakusten du bide onean goazela eta horrek indarra eta kemena ematen dizkigu Danobat proiektuari tiraka jarraitzeko.

Makina-erremintaren alorrean liderrak zarete nazioartean eta lidergo horri eutsi eta ahal den neurrian sendotzea dituzue erronka nagusi, osteguneko ekitaldian nabarmendu zenutenez.

Nola lortu du erreferentzialtasun hori Danobatek?

Hein handi batean bere horretan erreferentea den lantaldea izanda. Historikoki, Danobatek izan duen langile kolektiboa oso maila handikoa izan da, eta hala da gaur egun ere. Primerako ezagutza teknikoa duten pertsonak dauzkagu taldean, giza balio handikoak. Horiek dira Danobateko pertsonak. Era berean, aipatzen duzun erreferentzialtasun hori lortzeko ezinbestekoak zaizkigu gure bidelagunak ere, direla hezkuntza zentroak eta dela gure hornitzaileen sare bikain hori. Eta bukatzeko, gure izaera eta enpresa ulertzeko eta egiteko ditugun modu eta mekanismoak nabarmenduko nituzke. Hitz batean, kooperatibagintza.

Zer eskaintzen dio Danobatek bezeroari?

Makinak baino gehiago soluzioak eskaintzen ditu Danobatek, bezeroek dituzten arazo eta beharrei erantzuteko soluzioak.

Zeintzuk ditu lehiakide nagusiak?

Batik bat Alemaniako eta Japoniako makina-erremintako fabrikatzaile batzuk; ez dira asko oso indartsuak direnak eta maila handiko markak.

Zeintzuk dira Danobaten merkatu nitxoak gaur?

Merkatu aeroespaziala, energetikoa, trengintza eta automozioa dira esanguratsuenak.

Non edo zertan duzue begia jarrita?

Orain arteko negoziak mantendu eta indartu nahiko genituzke, baina horretaz gain, robotika arloan pausoak eman nahi ditugu.

Zer eskatzen du merkatuak?

Gure merkatua oso-oso exijentea da eta betebeharrak jartzen dizkigu dela kalitateari dagokionez, dela prezioei dagokionez eta dela epeei dagokionez ere. Oso epe estuekin ari gara lanean. Baina hori guztiaz gain, gure bezero askok zera eskatzen dute bereziki: konfiantzazko partner/bidelagun teknologiko bat izatea, azkeneko soluzioetan aurreratua dagoen bidelaguna.

Zeintzuk dira hemen bertako eta nazioarteko industria sarean berrikuntzaren etorkizuna markatuko duten joerak?

Batetik esango nuke ODSein erlazionaturik dauden gaiak indartsu sartzeko direla eta hala jarraituko dutela. Bestetik, gero eta soluzio autonomoagoak/automatizatuagoak eskatzen

direla azken urteetan, industria arloan (azken urteetan behintzat) lana egiteko gero eta pertsona gutxiago daudelako.

Zer erreminta dauzka Danobatek datorkionari aurrea hartzeko?

Ezagutza eta konpromiso handiko giza-taldea izatea da gure erreminta nagusia.

Dibertsifikazio teknologikoa aipatu zenuten. Pentsatzekoa da ezberdintzea dela gaur arrakastaren gako nagusietako bat.

Bai, baina bezeroari zerbitzu on bat (edo abantaila) eman behar dion ezberdintze bat izan behar du horrek; hor dago gakoa.

Zer beste faktorek laguntzen du arrakasta lortzen?

Pertsonak eta enpresak dituen egiteko moduak izaten dira bi faktore garrantzitsuenak, eta esango nuke ez dagoela beste faktorerik; beste dena kanpoko faktoreak dira eta horien kontrola ez daukagu enpresok.

Sorreratik izan da berezia Danobat. Ezaugarri sozialak zituen ereduia izango zela adostu zuten fundatzaileek, eta autonomia, ardura soziala eta giza balioekiko kezka ordainetan, zailtasun ugari aurre egiteko konpromisoa hartu zuten. Zein erronka dauzka kooperatibismoak gaur?

Euskadiko kooperatibismoa sortu zenean gabezi handiak zeuden gizartean eta kooperatibismoa erreminta paregabea bilakatu zen gabezi horiei aurre egiteko. Gaur egun ongizate maila oso handia daukan gizartea da gurea eta zailagoa izaten da kooperatibismoaren onurak azalaztea, baina gaur egun ere, hor daude eta niretzako nabarmenak dira.

Zeintzuk erronka daukazue etxe barrura begira jarrita?

Merkatuan posizioa mantentzea, ez dela gutxi, eta balio kooperatibistei beste bultzada bat ematea.

Zer nahi zenuke izatea beti Danobaten bereizgarri?

Barrura begira jarrita, erdigunean beti pertsonak jartzen dituen enpresa izatea. Kanpora begira, berriz, kooperatibaz batera, inguruaz ere arduratzen garela: hornitzaileez, herriaz, gizarteaz/komunitateaz, inguruneaz/planetaz, justizia sozialaz...



Danobateko bazkide sortzaile, bazkide erretiratu eta hildako bazkide sortzaileen familiei egindako harrerako

DENAK BAT

✍️ Ainara Argoitia 📍 Asier Orbea / Danobat

Astelehenetik domekara, edozenbat lagun izan zen joan zen astean Danobat ikusten, 70.urtemugaren harira. Eguenera bitartean, atek zabaldu zituzten arratsaldero, bazkideek etxeko eta ingurukoei lantokia erakusteko, eta Bizilabe egitasmokoek ere izan zuten



argazkia.

lantegia ezagutzeko aukera. Eguenean, berriz, agintari eta enpresa munduko bisita izan zuten Danobaten, eta barikua bazkide sortzaile, bazkide erretiratu eta hildako bazkide sortzaileen familiak elkartzeko eguna izan zuten. Egun berezia izan zen barikua

zalantzarik gabe, aspaldi ikusi bakoak elkartu eta Danobaten izan diren aurrerapenak ikusteko aukera izan zutelako. Domeka, berriz, Danobateko familien eguna izendatu zuten eta 800 lagun inguru elkartu ziren jai-giroan, urteurrena borobiltzeko.





Mendaroko hiru nerabek Gelatik Plazara sariketako finalean kantatu dute Debarrena ordezkatzan

Gipuzkoako Bertso-Eskolen Egunaren barruan antolatu zuten Gelatik Plazara sariketako finalean kantatu zuten domekan Haritz Zubiaurre, Mikel Romero eta Luken Zulaika mendarorrek, eskualdea ordezkatzan.

1974an sortu zuten lehenengo bertso-eskola, Aretxabaletako Almen ikastolan. Xanti Iparragirre, Patxi Goikolea eta Joanito Akixu bertsolariak izan ziren sortzaileak, eta domekan, efemeridea ospatzeko, Aretxabaletan bertan ospatu zuten Gipuzkoako Bertso-Eskolen Eguna bertso-eskoletako ikasleek. Bertsozale Elkarteko kideek antolatu zuten jaia, eta egun osoko egitaraua prestatu zuten 14 urtez azpiko gaztetxoentzat. Egitarauaren barruan, Gelatik Plazara sariketaren finala ere jokatu zuten. Zortzi eskualdetako talde bana aritu ziren finalean, tartean Debarreneko taldea, Mendaroko bertso-eskolako hiru umek osatutakoa. Finalerako sailkatutako taldeak bi taldetan banatu zituzten, eta bi final jokatu



zituzten, areto banatan. Debagoienekoekin, Goierrikoekin eta Tolosaldekoekin aritu ziren kantuan Debarrenakoak, zehazki, Oñati, Lazkao eta Asteasu-Billabonatik joandako talde banarekin, eta Amaia Agirre bertsolariak egin zituen gai-jartzaile lanak. Lehenengo, etxetik prestatutako agurrak kantatu zituzten, eta bat-batean aritu ziren gero: puntuari erantzuten, bi oinak emanda, gaiari erantzunez eta ofizioa. Ofiziotako lanetarako, Iñaki Gurrutxaga bertsolaria izan zuten lagun. Asteasu-Billabonako taldeak irabazi zuen sariketa eta azkeneko bi urteetan Gipuzkoako eskola arteko txapeladuna izan den June Aiestaran Iparragirrek (Beasain, 2006) jantzi zizkien txapelak. Gero, elkarrekin bazkaldu eta jolastu ziren Gipuzkoa osoko 130 bat gaztetxo eta begirale.

Sua Enparantza aktorearekin solasaldia izango dute gaur Mendaron



Herriko gazteei erreferente euskaldunak gurturatzeko In Leike Kultur Elkartek eta Mendaroko Udalak sortu zuten programaren barruan, Sua Enparantza dantzari eta aktorea elkarriketatuko du gaur Ainara Argoitia kazetariak, Mendaron. Udaletxeko udalbatza aretoan izango da solasaldia, 18:00etan hasita, eta antolatzaileek jakinarazi dute haur eta nerabeei lehenetara izango dutela.

Familiantzako erromeria antolatu dute Elgoibarren gaur arratsalderako



Familiantzako erromeria antolatu dute Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiak Sailak, Elgoibarko Udal Liburutegiak, Inazio Bereziartua musika eskolak eta Haritz Euskal Dantzari Taldeak gaur arratsalderako. Azkueko ermita ondoko berdegunean egingo dute, 17:30etik aurrera.

Bigarren Karlistaldia aztergai, Elgoibarren



Bigarren Karlistaldia (1872-1876): Foru sistemaren azken urteak izenburuko hitzaldia antolatu dute Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Ilunberri Achademiak maiatzaren 8rako (eguztzena), Elgoibarko Udalaren babesarekin. Mikel Alberdi historia zale eta Zumalakarregi Museoko historia teknikariak emango du hitzaldia, Aita Agirre kulturgunean, 19:00etan hasita. 1868ko iraultzaren ondorioz Isabel II. tronutik bota zutenean karlistek boterera iristeko ikusi zuten aukeraz mintzatuko da Alberdi, eta Bigarren Karlistaldiak Lehenengo Karlistaldiarekiko izan zituen antzekotasun eta desberdintasunak aztertuko ditu, foraltasunaren amaiera deskribatuz.

Herri Urrats jaira joateko autobusak antolatu dituzte Elgoibartik eta Mendarotik

Seaskako ikastolen aldeko Herri Urrats jaia izango da maiatzaren 12an Senperen (Lapurdi) eta autobusak egongo dira Elgoibartik eta Mendarotik hara joateko. Elgoibarren, Elgoibarko Izarrak eta Elgoibar Ikastolak antolatu dute autobusa, eta 09:00etan irtengo da Txankakuatik eta 18:30ean itzuli handik. Elgoibar Ikastolan, Elgoibarko Izarran edo on-line eman behar da izena, 10 euroren truke: <https://labur.eus/HerriUrratseraElgoibartik>. Mendaron, In Leikek antolatu du autobusa. 09:00etan irtengo da Mendarotik eta 19:00etan itzuliko da. 10na euro ordaindu beharko dira autobuseko txartelagatik. Izena emateko mendaroninleike@gmail.com helbidera idatzi behar da maiatzaren 5erako.

Erraldoien topaketa antolatu dute Elgoibarren maiatzaren 11rako



Erraldoien topaketa egingo dute Elgoibarren maiatzaren 11n (zapatua). Andoaingo, Iruñeko Alde Zaharreko eta Bergarako erraldoiek parte hartuko dute, Elgoibarkoetz gain, eta Mauxitxa txarangak ere parte hartuko du ekitaldian. 17:30ean hasiko dute topaketa, baina ordu erdi bat aurretik ikusgai izango dira plazan erraldoi guztiak.

Ana Salegi Egaña donostiarrak sortutako irudi batek iragarriko du Trinitate jaietako danborrada



Atabal elkarteak Trinitate jaietako nagusien danborrada iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du aurten ere eta joan zen eguenean eman zuten saridunaren berri. Guztira hamabost lan jaso dituzte lehiaketaren antolatzaileek eta horietatik Ana Salegi Egaña donostiarrarena apartatu du epaimahaiak. Maiatzeko azken asteburuan ospatuko dira Elgoibarren Trinitate jaiak, eta maiatzaren 25ean egingo dute nagusien danborrada.

222.000 euroko dirulaguntza emango dio Elgoibarko Udalak Elgoibarko Izarrari 2024an



Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea elkarteak 2024rako lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten martitzenean, administrazioaren eta herri ekimenaren arteko lankidetzaz sendotzeko eta elkarteak Elgoibarren egiten duen lana babesten eta bultzatzen jarraitzeko. Maialen Gurrutxaga Elgoibarko alkateak eta Amaia Sastre Elgoibarko Izarrako presidentek sinatu zuten hitzarmena, eta eurekin batera egon ziren sinadura ekitaldian, Euskara eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen arloetako zinegotzi arduradun Aitor Iriondo, eta Imanol Larrañaga Elgoibarko Izarrako dinamizatzailea.

2024an zehar euskararen erabilera sustatzeko ekintzak eta haurrentzako aisia hezitzaileko egitasmoa finantzatzeko, 222.000 euro jasoko ditu aurtun Elgoibarko Izarrak, iaz baino 12.000 euro gehiago. Orain arte bezala, dirulaguntza hori bi udal sailetatik bideratuko du Udalak: Euskara Sailetik 136.000 euro jasoko ditu Elgoibarko Izarrak, eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailetik, berriz, 86.000 euro. Elgoibarko Izarraren izenean, Amaia Sastre presidentek eskerrak eman zizkion Udalari eta nabarmendu zuen administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana ezinbestekoa dela, Elgoibarren euskara eta euskal kultura sustatu nahi badira.

Ane San Martin artista elgoibartarrak erakusketa zabalduko du gaur Elgoibarren

Azken urteetan egindako marrazki, pintura eta eskultura lanak erakusgai jarriko ditu gaur, maiatzak 3, Ane San Martin artista elgoibartarrak Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa-gelan (18:30). Azken urteetan izan duen bilakaera artistikoa erakutsiko du San Martinek eta aurreratu du erakusketan paisaien koadro figuratibo dezente jarriko dituen arren, azkenaldian izan duen abstrakturako joera ere erakutsiko duela bere lanen bidez, bai eta material ezberdinak erabiliz egin dituen jolas esperimentalak ere. "Oraindik ez daukat garbi zer bide hartuko dudana, baina erakusketa



honetan garbi ikusiko da nondik natorren eta oraintxe bertan hartzen ari naizen norabidea", zehaztu du San Martinek.

Sanloko harrobia, plazara



Eskubaloia plazara ateratzeko ekitaldia egin zuen domekan Sanlo eskubaloi taldeak. Eguraldi eguzkitsua lagun, 9 eta 12 urte bitarteko 70 bat neska-mutilek hartu zuten parte. Giharrak berotzeko eta talde izaera sendotzeko ariketak egin zituzten gaztetxoek udaletzeko arkupeetan, eta elkarren aurkako partidak

jokatu zituzten gero, Sanlokoek plazan prestatu zituzten bi joko eremuetan. Jardunaldiaren amaieran June Loidiren eskutik oparia jaso zuten parte hartu zuten umeek, ura edateko botila bana. Maiatzaren 10etik 12ra Donostian jokatu duten Espainiako Erreginaren Kopa girotzen eta sustatzen ari baita Bera Bera taldea.


Maite Maiorak hirugarren egin du Madeirako Island Ultra Trail lasterketan

Distantzia luzeko mendi lasterkarien artean urteko proba kuttunetarikoa da 115 kilometroko Madera Island ultra lasterketa, besteak beste, aldenik alden zeharkatzen duelako Madeira uharte ikusgarria, ia uneoro ozeano Atlantikoa hortzmugan dutela. Maite Maiorak ezagutzen du ibilbidea, 2019ko edizioan lehiatu baitzen. Antxixikari mendarorak laugarren postua eskuratu zuen orduan. Joan den barikutik zapatura bitartean jokatu zuten aurtengo edizioan ere hartu zuen parte Maiorak eta duela bost urteko sailkapena ontzea lortu zuen, podiumeko hirugarren kaxoira igota. Mundu mailako espezialistarik onenak lehiatu ziren emakumezkoen proban eta lehia estu baten



ostean, Martina Valmassoi (Italia, Salomon) gailendu zen, 16:14:10ko denborarekin. Hamalau minutura helmugaratu zen bigarren sailkatua, Anne-Lise Rousset (Frantzia, Scott).

Boxeo jaialdia, bihar



Hamar borrokaldiz osatutako amateur mailako boxeo jaialdia jokatuko dute bihar, hilak 4, Olaizaga kiroldegian. Emakumezkoen artekoak izango dira lau borrokaldi: Karla Vs Natalia; Oihane Vs Raquel, Amaya Vs Miriam eta Yesenia Vs Iradi. 19:00etan hasiko da jaialdia, eta 17:00etan egingo dituzte pisaketak Malape tabernan.

Erloko tontorrera igo dira Mendi Federazioaren sorreraren mendeurrena ospatzeko



Euskal Herri osoko ehun tontor igo dituzte asteburuan 116 mendi taldetako kideek, tartean Morkaikokoeak, 100 urte, 100 mendi egitasmoaren baitan. Morkaikok eta Euskal Herriko Mendizale Federazioak egindako deia irerantzunez, 75 mendizale elgoibartar batu ziren domeka eguerdian Erloko tontorrean. Antxitxika igo ziren batzuk, Kalegoen plazatik abiatuta, CATT Morkaiko trail taldeak antolatutako irteeran. Haurrak eta familiak, berriz, Aittolako aparkalekutik abiatu ziren oinez, 50 lagun guztira. Bi taldeak Erloko tontorrean elkartu

ziren 12:00etan. Euren kontura igo ziren zenbait mendizale ere batu zitzaizkien tontorrean, 75 mendizaleko taldea osatuz. Talde argazkia atera zuten Erlo gainean, horixe baitzen 100 urte, 100 mendi egitasmo helburuetako bat. Morkaikotik gogora ekarri dute amaitu direla aurtengoz Ikastolako eta Herri Eskolako gurasoekin elkarlanean antolatzen dituzten eskola umeentzako mendi irteerak. Umeek maiatzaren 11n izango dute elkarrekin mendian ibiltzeko beste aukera bat, Morkaikoren Egunaren barruan egingo duten Elgoibarko Itzultxoan parte hartuta.

Txixibilaldiak taldekoei aitortza, Morkaikoren Egunean



Morkaikok eta Elgoibarko Udalak Txixibilaldiak taldea omentzeko ekitaldia antolatu dute maiatzaren 11rako, Morkaikoren Egunaren barruan. 17:00etan jasoko dute aitortza Txixibilaldiak taldeko emakumeek. "Ekitaldi horren bidez, balioa eman nahi diogu, ia azken lau hamarkadetan, emakume mendizaleen ahalduntzea ikusarazteko egin duten lanari. Zuen dedikazioa eta lorpenak aitortzeko unea dela uste dugu", azaldu dute.

40 urtetik gora federatuta egin dituzten mendizaleak omendu dituzte



Euskal Mendizale Federazioaren 100. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan, federatuta 40 urte baino gehiago daramatzaten gipuzkoarrak omentzeko ekitaldia egin zuten aurreko astean Tolosako Leidor Aretoan, eta omenduen artean dira Izaskun Estibaritz eta Jose Inazio Izagirre mendizale elgoibartarrak. Federazioaren aitortza eta oroigarria jaso zituzten beste hainbat mendizalerekin batera.

Egun osoko egitaraua antolatu dute Euskal Herriko Itzuliko etaparen bueltan



Pedro Migel Urruzuno kalean amaituko da Emakumezkoen Euskal Herriko Itzuliko estreinako etapa (Gasteiz - Elgoibar, 140 km.), datorren maiatzaren 10ean, barikuan. Antolatzaileen aurreikuspenen arabera, 13:15etik 13:42ra bitartean ailegatuko dira txirrindulariak. Etapa amaituko den egunerako askotariko ekitaldiak antolatu dituzte hainbat eragilek elkarlanean (agendako orrietan ikus ditzakezue). Martitzenean aurkeztu zituzten xehetasun guztiak Alaitz Biritxinaga Itzulia lasterketako zuzendariak eta Elgoibarko alkate Maialen Gurrutxagak. Biritxinagak esan zuen oso pozik daudela Elgoibar Itzulia proiektuaren

parte bihurtu izanarekin. "Lasterketa gaztea da, baina asko eta arin hazten ari da. Azken urteetan ikusi dugun moduan, munduko txirrindularirik onenak etorriko dira, eta irabaztera datoz. Horrek bihurtzen du Itzulia Women nazioarteko egutegiko erreferente". Gurrutxagak esan zuen: "Ekitaldi honek argi erakusten du nola tokiko politikatik aldaketa handiak sustatu ditzakegun eta emakumeek arlo guztietan duten rola nabarmendu, lehia handiko kirola barne". Herritar guztiak gonbidatu zituen txirrindulariak animatzera eta herriko eragile eta elkarteekin batera antolatu dituzten jarduera guztietan parte hartzera.

Unai Oyon eta Izaro Ezpeleta azkarrenak Mendaron, infantilen lasterketan

Txirrindulari gazteen lasterketak jokatu zituzten zapatuan Mendaroko Erramone industrialdean, Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta. Ekaitzak dena zapuztu behar zuela zirudien arren, iragarrita zeuden hiru lasterketak arazorik gabe jokatu ahal izan ziren azkenean. Infantilena izan zen lasterketa nagusia, baina aurrez, benjaminek eta alebinek ere izan zuten beren erakustaldia emateko aukera. Alebinen mailan, nesketan, Nile Agirretxe Dorletako ama txirrindularitza eskolakoak, Naikari Ori Azkoitiko Peña Elortzakoak eta June Iraolagoitia Elgoibar Lagun Taldekoak izan ziren azkarrenak, eta mutiletan, Julen Osa (Peña Elortza), Ekaitz Urteaga (Aloña mendi) eta Ion Salaberria (Goierrri k.t.). Infantiletan, berriz, Dorletako Ama



Txirrindulari eskolako Unai Oyon eta Markel Diaz izan ziren lehenengo bi azkarrenak eta Aimar Irizar Aloña mendikoak osatu zuen podiuma. Nesketan, Izaro Ezpeleta (Dorletako ama), Ainhoa Plaza (Dorletako ama) eta Ane Atorrasagasti (Aloña mendi) sailkatu ziren lehenengo hiru postuetan.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzen, eraikuntzan peoi moduan edo garbiketa lanetan aritzeko prest nago. Oso arduratsua naiz eta esperientzia handia daukat. **632 708 954**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka nahiz etxeko langile moduan. Gaeuz ere lan egiteko prest nago. Esperientzi handia daukat. **602 613 594**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. Garbiketa lanetan ere jarduteko prest. **624 841 714**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. Etxeko langile moduan ere bai. **655 390 844**

Adinekoak zaintzeko prest nago, gaeuz edo orduka. Esperientzia daukat. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. **611 215 176**

Adinekoak zaintzeko nahiz garbiketa lanak egiteko prest nago. Berehala lanean hasteko moduan. **602 152 685**

Adinekoak zaintzeko nahiz garbiketa lanak egiteko prest nago. Asteburuetan edo etxeko langile moduan aritzeko prest. Erizain titulua eta titulu soziosanitarioak ditut. Esperientzi handia. **643 505 662**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. **634 196 236**

Adinekoak zaintzen nahiz garbiketa lanetan arituko nintzateke. **602 152 685 / 602 362 919**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Asteburuetan ere bai. **641 756 213**

Adinekoak zaintzeko prest, etxeko langile moduan. **688 652 050**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta lanerako baimena ditut. Gaeuz edo arratsalde. **655 094 780**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta lanerako baimena ditut. Gaeuz edo arratsalde. **642 578 943**

ETXEBIZITZAK

Gutxienez bi logela dituen etxea hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren. **614 841 714**

GARAJEAK


Marradun garajea erosi edo alokatuko nuke Iñiñez Karkizao kalean. **688 616 714**

OSPAKIZUNAK

1964an jaiotako bazkaria, ekainaren 22an, Sigma jatetxean. 13:00etan elkartuko dira Foruen plazan argazkia ateratzeko. Ondoren, luntxa, eta 14:30ean bazkaria. 70 euro sartu behar dira ekainaren 8rako Laboral Kutxan. ES28 3035 0007 26 0071144881.

1959an jaiotako kinto ospakizuna ekainaren 8an. Marem tabernan batuko dira 13:00etan eta Sigman bazkalduko dute 14:30ean. 70 euro ordaindu behar dira maiatzaren 15erako. Laboral Kutxa: ES35 3035 0007 27 0071144803

  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Etxebizitza bat daukat eta barrutik banatu egin nahi nuke. Jakin nahi nuke ea komunitateak galaraz diezadakedan hori egitea.</p> <p>Zatiketa juridikoa legez dago araututa. Jarduketa mota honen bidez, bi finka independente edo gehiago sortu daitezke, hasiera batean finka bakarra zegoen lekuan. Prozedura nahiko konplexua da; izan ere, eragina jasan dezaketean jabeen baimena ez ezik, komunitatearen adostasun osoa ere behar da. Ez da ahaztu behar jarduketa honek jatorrizko higiezinaren eskritura-koefizientea igotzen duela eta horren ondoriozko lurren artean zatikatu beharko dela. Horretarako, banaketa horizontalaren eskritura eta zatitutako finken eskritura aldatu behar dira. Zatiketa materiala, aldiz, askoz sinpleagoa da, ez baitu balio juridikorik. Pisu edo lokalaren jabeak barneko konponketak egitean datza, adibidez, horma berriak eraikiz, espazioaren banaketa berria lortuz. Elementu berriek jatorrizkotik aparteko irteera izan nahi badute, zulo hori ireki beharko da.</p> <p>Ondorioa: higiezin batzuen estatutuek jarduera mota hori ahalbidetzen dute, eta bertan adierazten da jarraitu beharreko protokoloa. Bestelako kasuetan, horrelako jardueretarako aurreikusitako erregulazio juridikoa aztertu beharko litzateke.</p> <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, sorgintxo, gaur 2 urte bete dituzulako. Segi orain arte bezain alai. Patxo handi bat etxekoan eta bereziki Ekhiren partez.



Maiatzaren 4an eta 6an, 10 eta 13 urte beteko dituzue hurrez hurren, **Iker** eta **Haritz**. Bi ospakizun elkarren jarraian. Bai ondo! Zorionak bioi, etxekoan eta lagunuen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



LAGUNAK
solcheneria textil hogor

**Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurrira.
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,
edozein ehun konpondu ahal izateko:**



**PUNTUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOAK ETA KULOTEAK,
LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...**

Komertzioekin lan egiten dugu
(etxeko ehungintzeekin eta jantziekin)
TARIFA BEREZIAKI!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 6tik 24ra

**IKASTETXE PUBLIKO
DOAKOA**



**UNI
EIBAR
ERMUA**



F 

M 

A 

I 

GOI MAILAKO ENJIOAK
ERDI MAILAKO ENJIOAK

- EGOKITZAPEN FISIKOA
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOIA
- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- GARRAIO ETA LOGISTIKA
- MERKATARITZA JARDUERAK
- ADMINISTRAZIOIA ETA FINANTZAK
+ Administrazioia eta Finantzak eskaintza partziala arratsaldez.
- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOIA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
- SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA

ESPEZIALIZAZIOAK

ZIBERSEGURTASUNA
INFORMAZIOAREN
TEKNOLOGIEN
INGURUNEETAN

www.uni.eus

Otsola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | idezkaritza@uni.eus | [uni.eus](https://www.uni.eus)

3 BARIKUA

17:30 Erromeria familian. Azkueko berdegunean. Ludotekak, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolarekin batera antolatzen du erromeria, eta aurten Haritz EDTk ere hartuko du parte.

18:00 Sua Enparantza dantzari eta aktorearekin solasaldia. In Leike kultur elkarteak eta Udalak antolatuta. Udaletxeko udalbatza aretoan.

18:30 Ane San Martinen erakusketa: Pinturak eta eskulturak. Hilaren 18ra arte egongo da ikusgai astelehenetik zapatara, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

4 ZAPATUA

10:30 Dantza familian. Arno Guraso elkarteak antolatuta, Azpilgoetako kultur etxean.

13:00 Biraka dantza taldearen emanaldia. Aita Agirre kulturgunean.

19:00 Boxeo jaialdia. Olaizaga kiroldegian.

21:00 Dantza gaua. Kultur Kafean.

5 DOMEKA

18:00 'Laburbira'. Euskarazko film laburren emanaldia. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

7 MARTITZENA

18:00 Mahai-ingurua: 'Gorputz irudia, sare sozialak eta autoestimua'. Andrea Osoro eta Paula Fernandezekin. Lilan, gaztelaniaz.

15:30 Espazio publikoak berrantolatzeke plana diseinatzeko bilera. Lau aurkezpen bilera egingo dituzte. Lehenengoa, Mendaroko Ikastolan, gurasoentzat. 17:30ean udaletxean, Emakumeen Mahaiarentzat eta 18:30ean herritarrentzat, udaletxean. Maiatzaren 14an izango da azkena, adinekoentzat.

8 EGUAZTENA

19:00 Hitzaldia: 'Bigarren Karlialdia (1872-1876): Foru Sistemaren azken urteak'. Mikel Alberdirekin. Aita Agirreko areto nagusian.

9 EGUENA

19:00 Ikastaroa: 'Nola atera etekina mugikorrari'. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19:00 Mendaroko Udalaren lau urterako gobernu planaren aurkezpena. Udaletxeko pleno aretoan.

10 BARIKUA

17:00 Buruarinak egiteko tailerra, HH3tik LH6ra artekoentzat. Mendaroko Gaztelekuan, Mendaroko Konpartsa taldeak antolatuta.

ITZULIA WOMEN 24

Maiatzak 10, barikua

09:30 Elgoibar Sasoian. Kalegoen plazan. Saio irekia izango da.

10:30 Dantza urbanoak. Saio irekia, Lekuederren. Ordu berean, umeentzako herri-kirolak eta jolasak egongo dira.

12:00 - 13:00 / 14:30 - 15:30 Haur eta nerabeentzako jantokia. Maalako parkean.

13:00 Itzulia Women 2024 lasterketako lehen etaparen amaiera. Pedro Migel Urruzuno kalean.

Jarraian, sari banaketa. Kalebarren plazan.

15:00 Looping bike 360º eta mountain bike simulazioa. Maalako parkean.

19:00 Euskal dantza erakustaldia, Kalegoen plazan.

Jarraian, Patxangoi elektrotzaranga. Kalegoen plazan hasita.

22:00 Mugi Panderoa taldearekin erromeria. Maalako parkean.

24:00 DJ Latxirongak. Maalako parkean.

Zinea

Herriko Antzokiko langileen greba dela-eta, asteburu honetan ez da zine emanaldirik egongo.

Eta, Debabarrenean zer?

Erromeria Eguna, Itziarren

Erromeria Eguna antolatu dute Itziarren, biharko, maiatzaren 4rako. Hona hemen egitarau osoa: 12:00etan: Zubietako joaldunen eta Itziarko Trikiti Eskolakoen kalejira; 13:00etan: Itziarko eta Vianako dantzariak; 18:30-21:00: Erromeria frontoian, honako trikitilari hauekin: Aitziber Arruabarrena eta Aritz Erasun, Daniel Oiarbide eta Pello Urdangarin, Jon Ostolaza eta Rakel Pujana; Nagore Zulaika, Uxue Aranguren eta Sara Osa; eta Elaia eta Jare Izagirre. 21:30: Erromeri-afaria trikitilariekin. Oharra: afarirako txartelak Bikain jatetxean (943 199 370) egongo dira salgai, 25 euroan.

2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

MAIATZA

3 BARIKUA	Barrenetxea
4 ZAPATUA	■ Ibañez
5 DOMEKA	■ Ibañez
6 ASTELEHENA	Garitaonandia
7 MARTITZENA	Arriola
8 EGUAZTENA	■ Fernandez
9 EGUENA	Yudego
10 BARIKUA	■ Oruesagasti

2024 urte guztian, gauzez:
Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez: Herriko Enparantza, 4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
--	--	--

Jon Aranao
Guillermo Torres



Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Atzelerenik ostialdean: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Itxopaindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartzeko.



- ✓ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ✓ MULTIKOPISTAK
- ✓ FOTOKOPIAGAILUAK
- ✓ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ✓ MARRAZKETA MATERIALA
- ✓ INFORMATIKA
- ✓ FAXA

MEKANOSA
Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

EXPRESS ESKAINTZAK!

**WFQA9014EVJMW HISENSE
ARROPA GARBIGAILUA**

ATG **A**

399 €

- 9 Kg-ko karga
- 1400 b/min
- Wifia
- Lurrun-funtzioa
- Motor Inverter




MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

IÑIGO PEREZ-ARREGUI

BPTD Elkarteko presidentea

✍ Egoitz Unamuno / 🗣 F. Oregi

BPTD, Basque Precision Technology District, 2019an eratu zuten eragile publiko eta pribatuek eta gaur egun Debabarreneko eta inguruetako prezisioko teknologia arloko 41 enpresa batzen ditu. Iaztik, Iñigo Perez-Arregi De Codes da elkartearen presidentea (Donostia, 1968). Donostiarra den arren, ondo ezagutzen du bailarako industria, bere lan-ibilbide osoan zehar bailarako enpresetan lan egin duelako. Duela 25 urtetik Eibarren dihardu, EPC enpresan. Bertan erantzun ditu DKTren galderak, elkarteak ekainaren 14an Ermuko Izarra Centren egingo duen urteko batzar nagusiaren aurretik.



enpresak gehiago daudela zuzenduta eraldaketara produktu berriak sortzera baino. Testuinguru globalaren eta gure sektore teknologikoan bilakaera oso-oso azkarra da. Alde horretatik, BPTDk zeregin garrantzitsua du dibulgazio lanean eta tamainagatik erronkei aurre egiteko zailtasun gehiago dituzten enpresei laguntzen. Aurten, bigarren seihilekoa hobea izango delakoan gaude. Dena den, aurreikustea oso zaila da. Agerikoa da egoera soziopolitikoarekiko dependentsia, eta gaur gaurkoz, egonkortasunik ez da existitzen.

“BPTDk, batasun irudiaz gain, lehiatzeko gaitasuna ematen digu”

BPTDk sei urte beteko ditu aurten. Zein balorazio egiten duzu urteotako ibilbideaz?

Elkarteak ibilbide laburra du oraindik, baina dagoeneko, bailararentzako balio handia duten enpresak batzen ditu. Datu batzuk ematearren, elkartearen dauden enpresek 596 milioi euroko negozio bolumena mugitzen dute, 44 milioiko gastua dute I+G arloan eta 4.103 pertsonari ematen diote lana.

Zergatik da garrantzitsua eskualdeko elkarte edo marka izatea?

Gure enpresen tipologiagatik. Txikiak gehiago dira ertainak baino. Gertutasuna. Elkarteak aukera ematen du bailaran proiektuak bateratzeko, elkar ezagutzeko, lankidetzan jarduteko, elkarrekin irtenbideak aurkitzeko... Horrek guztiak indar eta batasun irudia emateaz gain, merkatuan lehiatzeko gaitasuna ematen digu.

Nolakoa ari da izaten sektorearen bilakaera azken urteotan?

Nolabaiteko kezka bizi dut hori, ikusita gure

Zein dira Debabarreneko enpresen indarguneak?

Esperientzia eta orainaldi honetara arte ekarri gaituen historia. Gainditu ditugu krisiak, biziraun dugu, badugu jakintza eta badakigu egiten.

Eta ahulguneak?

Gure industria sarearen egitura eta osaketa: gehienak pymeak dira, eta batez ere txikiak, geroz eta gehiago eraldatzaileak eta produktu gutxiago dutenak. Gainera, merkatu berrietarako sarbidea, nazioartekotzea, eskakizun administratiboak, burokrazia orokorra... Horiei guztiei erantzuteko baliabide asko behar dira, eta orohar, enpresa txikiak ez dituzte. Elkarteari erraztaile izatea dagokio.


2024ari begira, zein dira BPTDren helburu nagusiak?

Maila estrategikoan, hiru azpimarratuko nituzke: elkarte osagai estrategikoa izatea bailarako garapen industrialean; elkartearen tamaina handitzea indar gehiago izateko, eta gure batzordeak izaera aktibo eta proposatzailea izatea. Maila operatiboan, jarraitzen dugu aktibitate ekonomikoa sortzera bideratutako proiektuak garatzen, beste entitate batzuekiko eta administrazioarekiko aliantzak sendotzen, enpresen beharrei erantzuteko programak abiatzen... Horiek guztiak xehetasun gehiagorekin azalduko ditugu ekaineko batzarrean.



Felix Retolaza Mendikute

2024ko martxoaren 17an hil zen, 83 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Vicente Maiztegi Agirregomezkorta

2023ko maiatzaren 4an hil zen, 95 urte zituela.
Haren oroimenez I. urterreneko meza izango da, domekan,
maiatzaren 5ean, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.




VII. URTEURRENA

Emiliano Marcos de la Torre

2017ko maiatzaren 4an hil zen, 85 urte zituela.

Gure artean jarraitzen duzu.

Etxekoak




III. URTEURRENA

Ana Mari San Martin Aranberri

2021eko maiatzaren 5ean hil zen, 79 urte zituela.
Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da,
domekan, maiatzaren 5ean, 11:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren Eliz-parrokian.
Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

Maite zaitugu.

Etxekoak



G R E M I O N E N GIDA



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

PLAGANATURA

Cuidando la Salud Ambiental

618 198 760

ivan@plaganatura.eus
www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

BIENA, S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Urzuzano, 8
943 740 512
fax: 943 743 565
blendia@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279



AROZTEGIA

iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutuz-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com
@carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk
20870 ELGOIBAR

23,82€
hilean

12
aldiz urtean

4.700
ale astero

23,82 Eren truke, hilerio, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleitho ikusiena.

4.700 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada eskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.